

atera gorria!



bbk=

BBK26=

abantaila eta deskontu pila

www.bbkk.es

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

# berria

2005ko OTSAILA  
74. zkia. DOHAIN

## Jose Maria Otsoa de Txintxetru

“Gerra zibilaren zauriak  
ez dira egundo itxiko”



Karmelok  
40 urte

Santutxuko  
inauteriak

Otxarkoagako  
bandak



## Etxebarria fabrika eta Zumalakarregi (1987)

*Ez gara antxine-antxinera joan oraingoan. Zumalakarregi etorbidea da goiko erretratuko autobidea eta, ezkerreko horma eta atzeko eraikinak, barriz, Etxebarria fabrika zana. Argazkia 1987ko urrian eginda dago, eta hormetan errebindikazio askoren aldeko pintadak egozan. Besteak beste, fabrikako orubean parke publikoa egiteko deia. Azkenean Bilboko Udalak horixe egin eban, EAJ, HB, EA eta EEren botoakaz, Jose Maria Gorordo alkatea zala. Aldatuta dago paraje hori gero!*

*Argazkia Ricardo Perezek itzi deusku.*



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia .....	4	▶ Inkesta .....	19
▶ Karmelok 40 urte .....	5	▶ Mahatsberriak .....	20
▶ Begoña eta euskerea .....	8	▶ Hezkuntza .....	24
▶ Eneko Ribas .....	10	▶ Leungana mendia .....	27
▶ Santutxuko inauteriak .....	12	▶ La Calderakoen maketa .....	28
▶ Elkarrizketa: J.M. Otsoa de Txintxetru 15		▶ Horoskopoa/Agenda .....	30

Begire nago hamen aber Bertin badator da kontaten dostien ze letxes pasau dan hamen ingeruen azkenokaz, ze eitten dauen hotzagaz ez dago kanpora urteten atrebiden dan kristaurik, ez musulmanik, ezta ateorik bere. Da baten batek urtengo zeuen kanpora, ze hamen Mahatserridxen jende balientie egon dago ba! Aittu honek gudaridzek kontaten ditzuzeneri ba! Zer eta Francon denboran Radio Algeciras-en Eusko Gudariak kantau, eutsi horeri! Edo beste hori Nafarroako mendire joan dana hamen zero azpidixen gabilzenien, Siberidixen bere epelago ibili behar da ba! Badekogu ba edurregaz ta leiegaz kanpora urteteiko besteko jentie. Da tradizinoa bere badago, ze balientie ixen biher da Bilbotarreri Begoñeko Ama Birjinie ixteko da hareikaz fideateko bere. Eskerrak alkatie bueltan eskatuten joateko bere balientie ixen zala. Orain, barrez, metroak da trenak ipinten doskuez


bata bestien atzetik aber Bilbora bajaten atrebiden bagarez, gu atrebidu bai, aber eurek atrebiden badirez hona igoten ba!

Da balientie ixen, karnabaletan disfrazta jantzitze urteteiko ixen biher da, da kantuek batu da diskoak atateko bere bai, ze pirateoa ta zelan dabilen ikusirik ez dakitt asko salduko ete daurien.

Da honeik danak euskerien kontuen dabizenak bere, balientiek eta gogotsuek, ze ikastolie ein, 40 urte aguantau, oin euskerien astien bere egin da aguantau, da ganera Korrika etorri da danak aldatz gora da behera karran. Gogoa eduki biher da ba! Ez dot entenditen dana dala zeaittik dinourien "Correr es de cobardes".

Tire ba! Ez dakitt hamen zenbet monumento ein biherko littikez. Neu behintzet, ez naz esaten atrebiden.

ANTONIO EGILUZ OSAGILEAREN KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Osagile barakaldotar honen izena ipini jakon 1974. urtean Begoñako eleizateko Santutxu auzoko kale bati. Izan bere, urte horretan hartu eban izen hori Santutxu kalean hasten diran kaleetako batek. Haren hasiera Santutxu kale horren eta Kalamua izenekoaren arteko bidegurutzean dago, eta amaiera, barriz, Losada margolariaren omenez ipinitako kalean.

Antonio Egiluz Oiartzabal Barakaldoko eleizatean jaio zan, aurreko lerroaldean esan dogun legez, 1886. urtean, eta 1955. urtean hil.

Barakaldoko semea izanik, bizimodua Begoñako errepublikan ezarri eban, eta eleizate horretan izen handia hartu eban herriaren artean, hainbat izurriteren aurka egindako lanagaitik. Berbarako, nabarmendu behar da fluaren aurka 1918. urtean egin eban lana. Egin-eginean bere, urte horretan Lehen Mundu-gudua amaitu zan, eta hainbat arazo jazo ziran flu espainiarra zeritzonagaz.

Begoña Bilboratu zanean, Begoñako osagilea izatetik Bilboko udal osagilea izatera pasatu zan. Beraren bizitzaren zertzelada nabarmenen artean bada bat ahaztu ezin daitekeena, bera izan zan-eta Espainiako Zientzia Medikoen Akademiako burua 1928. urtean.

GOTZON LOBERA REVILLA



Karmelo ikastolako jaialdi bat 1970 urtean

# Karmelo ikastolaren 40 kandelak

Santutxuko ikastolak proiektu berriez hasiko du bere bosgarren hamarkada

Karmelo ikastolak 40 urte bete ditu ikasturte honetan. Ibilbide luze bezain oparoa eduki du baina hori ez da nahikoa, erronka berriak dauzka ate joka. Handiena, ikastola berria, Larreagaburun 2008 urtean estreinatuko dutena. Bitartean, apirilerako programa polita prestatu dute euren zorionak ospatzearren.

Testua: *H. O.*  
Argazkiak: *Karmelo ikastola*

1964ko ikasturtean hasi ziren Karmelo ikastolaren lehenengo eskolak. Berrogei urte joan dira harrez gero eta ikastolakoek ospakizun sorta polit bat prestatu dute datorren hilabetean -apirilean- urtemuga gogoratzeko. Programa prestatzeko batzorde bat sortu dute irakasle eta gurasoen artean. "Gure

asmoetako bat -azaldu du Loli Gotik- ibilbide luze hori berreskuratzea da, guraso batzuentzat oso kontu zaharrak direlako; horrela gaurko gurasoek aurrekoek eginiko lana eskertuko dute".

Historia hori berreskuratzeke hiru bide erabiliko dituzte. Batetik, hitzaldi

baten sasoi hartako lekukotasunak batuko dituzte. Bestetik, argazki erakusketa bat prestatzen ari dira 40 urteko ibilbidea irudietan islatzeko. Eta, hirugarrenik, bideo bat amaitzekotan daude Karmelo ikastolaren lehenaldia eta orainaldia agertuz. Bideoa, ikasle ohi bik eta guraso batek paratu dute.

Bizkaiko Foru  
Aldundiko  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria

ARGITARATZAILEA:  
Batana Batu Kultur  
Elkartea

ERREDAKZIOA:  
Iturriaga 55, 1. ezk.  
Bilbo - 48004  
Tfnoa:  
94 473 54 48  
e-posta.:  
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA  
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:  
Arrate Diez,  
Eneritz Ibarrodo,  
Nerea Aburto,  
Iratxe Ruiz,  
Unai Cuevas,  
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:  
Iñigo Azkona  
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:  
Iñaki Berastegi  
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:  
Alberto Ugarte, Iñaki  
Gaminde, Igor M. de  
Vidales, Santutxuko  
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,  
Jose Otazua,  
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA  
PUBLIZITATEA:  
Koldo Urrutikoetxea,  
Arrate Diez  
LEGE GORDAILUA:  
Bi-85-98  
ALE KOPURUA:  
1.800

1964ko hasiera apal hura bestelakoa da gaur egun. Karmelo ikastolak 360 ikasle dauzka Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Santa Marta eta Menendez Pelayo kaleko lokaletan dago. Eta, ondo bidean, 2008an Larreagaburu -Mina del Morro- aldean egongo da eraikin berri baten. Ikastola berria alderdi horretan egin behar duten parkearen proiektuaren baitan dago.


**URRATSEZ URRATS**

Berrogei urteotako ibilbideak mugarri argi batzuk dauzka. Alde batetik, sorre-ra, Karmelo ondoko lokaletan -hortik datorso izena- frankismoaren garai ilunetan. Sortzaileak: Gabino Azaola, Jose Luis Kerexeta, Joseba Arrieta eta Iñaki Zabala. Eragozpenak, trabak, material falta, ... baina ilusia itzela. Gero eta ikasle gehiago etorri zen ikastola txikerrera eta lokal berrietara aldatu behar izan ziren: Iturriaga zeharkaleko pisu bat, Anselmo Gineako etxepea, Goialde,...

1978 urte kritikoa izan zen, zatiketa gertatu zen eta. Guraso talde handi batek Karmelo utzi zuen beste ikastola bat sortzeko: Kirikiño. Gainerako gurasoek eta irakasleek Karmelori eutsi zioten.



Goian, mendí buelta bat. Erdian, ikastolako jolastokia. Behean, ikasle talde bat Jose Angel Lasarekin



Orduantxe erosi zituzten Menendez y Pelayo kaleko lokalak. Aita-amen, irakasleen eta hainbeste auzotarren auzolanari esker lortu zuten.

Hurrengo mugarrria, duda barik, sare publikoan sartzeko erabakia izan zen. 1993an hartu zuten, eztabaida handietan murgilduta ibili eta gero. Harrez gero, Karmelo ikastola publikoa da.

Eta, esan legez, azken urteotan Hermandades de los Pobresen ondoko orubea eskatzen ibili ostean, oraingo erronka Larreagaburuko eraikin berria da. "Badakigu aldaketa handia izango dena, baina moldatuko gara. Ez daukagu dudarik", esan digu Begoña Oziok.

**NORTASUNA**

Historia luzea eduki arren eta sasoian sasoiko gorabeheren gainetik, bere proiektuari eutsi dio Karmelo ikastolak. Nortasuna dauka. "Karmelo hautatzen duten guraso askok badakite zergatik egiten duten, guk heziketa proiektu bat eskaintzen dugulako, euskal kulturarekin eta euskararekin identifikatuta", argitu du Loli Gotik.

Nortasun horri eusteko giltzarrietako bat klaustroaren egonkortasuna izan da. Asko dira urte sorta ederra



Doctor Deseo taldearen kontzertua ikastola. 1980 urtea

bertan egindako iraskaleak. "Eta lehengo inertiak ere badaude. Lehendik datozen kontuak gauza naturalak dira hemen, ez dute erresistentziarik eragiten. Euskal kultura, euskararekiko exijentzia, ...".

Karmelo ikastolaren ezaugarrietako bat gurasoen parte hartzea ere bada. "Aita-amek eginkizun handia eduki dute beti ikastolan. Egia da publikazioak ardura batzuk kendu zizkigula baina oraindik ere ikastolako hainbeste ekintza gurasoen lanari esker egiten dira", aitortu digute.

Jardun horretan Santutxuko herritarren babesa ere hur-hurrean sentitu izan dute. Batez be estutasunak pasatu dituztenean. "Ikastola auzoari esker egin zen", esan du Loli Gotik. Harreman horretan murgilduta, ikastola ere Santutxuri zabal-zabalik egon da eta dago. Horrela, auzoko hainbeste ekintzatan parte hartuta daude eta ikastolako lokalak elkarte zein herritarrei irekita egoten dira. "Esate baterako, Bertso Eskolakoak hemen batzen ziren, gero Sorginxulora aldatu ziren eta orain, berriro hemen dira".

Karmelo ikastolaren indarra horretan datza eta horregatik ez dio ezer kentzen oraingo instalazioen apalak. Etxepe baten daude eta ez daukate beste ikastetxe askoren azpiegitura dotoreak. Horren falta beste bertute batzuekin konpentsatzen dute.

Indar horretatik etortzen bide zaio, esate baterako, ikasleen euskara erabilera maila. "Guk nahi duguna baino baxuagoa da, baina antzeko giroko beste ikastetxe batzuekin alderatuta, hobeagoa da", esan du Begoña Oziok.

**KARMELO IKASTOLAK  
40 URTE EUSKARAZ  
ZORIONAK!!**

Apirilak 15 ostirala  
Urtebetetze eguna  
Umeentzako jolasak  
Eriz magoa  
Iñaki Lasa ipuin kontalaria  
16:30. Urtebetetze jaia. Erromeria  
Xabier Aburruzaga eta ikastolako trikitalariek.


Apirilak 16 larunbata  
Kalejira Santutxun zehar  
Euskal erromeria Gaztedirekin Karmelo plazan.

Apirilak 19 asteartea  
Hitzaldia: Euskal irakaskuntza Santutxun  
Argazki erakusketaren irekiera  
Bideo emanaldia: 40. urteurrena.

Apirilak 21 osteguna  
Antzerkia. 'Euskara senziloaren manifestoa'. Mikel Martinez-Patxo Telleria.

Apirilak 22, ostirala  
Pirritx eta Porrotx pailazoak.  
Pilota partidak.  
Kontzertua. 'Pin, pan, pun band'. Basarraten.

Apirilak 23, larunbata  
Golokarekin kale animazioa Karmelo plazan.  
Bazkaria ikastolan.  
Azken traka eta despedidea.



**SANTUTXU SPORT**

**Kirolak**  
**Punta-puntako kirol markak**

**SPORT**

Karmelo 9 Santutxu 94 412 37 01

A T U G U R E R A

D A T U G U R E R A

# BEGOÑA ETA EUSKERA

*1775eko bagilan edo ekainan, uriola handiak izan ziren Bilbon. Beldur handieneko momentuetan erremediorik eragingarriena erabili zuten. Begoñako elizatik Andra Mariaren imajina hartu eta Bilbora jaitsi zuten. Urak be, behera egin zuten eta, badaezpada, mahatsorriak berehala joan ziren Bilbora Andra Maria atzera be Begoñara ekartzeko eskatzera.*

## Begoñako Andra Mari, uriolen lasaitzaile

1775ko bagilaren 20an Begoñako fiel -alkate- Manuel Antonio Andirengoetxea Bilboko Gurutzeko komentuaran ateetan agertu zen eskribau batez. Arratsaldeko hirurak ziren. Bertan, Bilboko Udaleko kargudun bati eta komentuko mojen buruari gogorarazi zien ordu batzuk arinago gertatutakoa.

Bezperan euria ibaika jausi zen Bilbon. Zeruak bota ahala zen hiribildua. Horren ondorioz, uriolak etorri ziren, itzelak. Bilbo lotu zen "cojida e islada del agua de resulta de gran-

des llubias y cresidas abenidas en ella así por la ria maior como de otras partes". Orduantxe, Bilboko Udaleko kargudunen eskariz, "por su especial deboción y caso urgente se había permitido sacar y sacado la santa ymajen de nuestra señora santa maria de Begoña de su altar maior e Yglesia Parrochial monasterial de dicha



Begoñara prozesioa Zabaldide kaletik. 1900 urtea

dago. "Para implorar y pedirla con la maior devoción la intercesión con su inmensa y soberana Magestad Dios y Señor Nuestro a fin de que con su alta misericordia y piedad se dignase serenar la tempestad de aguas".

Baina, antza denez, mahatsorriak ez ziren bilbotarrez

república".

Irudia Begoñako elizatik atera zuten, beraz, eta prozesio bat eginenez Bilboko Gurutzeko komentuko aldaire nagusian paratu zuten "a la ora de las seis a seis y media de la mañana de este mismo día". Gurutzeko komentua Bilbon zegoen baina Begoñako mugatik hur, "a la proximidad de la Jurisdiccion de la Anteiglesia de Begoña". Mallonako kalzaden ondoan zegoen, gaur egun Gurutzea auzoa dagoen orubean.

Zertarako eraman zuten irudia Bilbora? Argi



Begoñako elizaren argazki zaharra

fidatzen eta argi-argi idatzi zuten "que la entrega de dicha santa imajen había sido bajo de la protexta de debilberse por esta dicha Noble Villa" behin uriolak pasatutakoan, "manteniendose en el interin en la yglesia de dicho combento solo por vía de deposito". Hori dena gogorarazi ostean, Begoñako fielak bilbotar kargudunari Ama Birjinaren irudia atzera be Begoñara ekartzeko eskatu zion. Bilbotarrak hori dena egia zela aitortu zuen eta emandako berba bete egingo zutela erantzun zuen.

### BEGOÑARA BUELTAN

Hiru egun geroago, bagilaren 23an, goizeko bederatzietan Begoñako Andra Mariaren irudia Gurutzeko komentutik prozesioan atera zuten. Barikua zen. Gurutzeko komentuan emandako hiru egunetan hainbeste meza egin zioten, bilbotarrek ordainduta. Prozesioan Bilboko abadeak, San Francisco eta San Agustin komentuetako fraideak "y grande numero de vecinos y personas de ambos sexos de la mencionada villa y de otros pueblos y lugares" batu ziren. Azkenak, Korrejidorea eta Bilboko Udaleko kargudunak. Azken horiek prozesioa argitzeko "quinze achas de zera" eramaten zituzten.

Andra Mariaren irudia Bilbon barrena hara eta hona erabili zuten lehenengo, eta gero Begoñarako bidea hartu zuten. Hona kontakizuna: Ama Birjina "fue llevada por quatro clerigos sacerdotes por la calle de

Ascao asia enfrente de la Yglesia Parrochial de los señores san Juanes y por la que atraviesa desde ella a la calle del correo de dicha villa y desde esta por la de la Sombrerería de ella se dio buelta con dicha procesion" Gurutzeko komentura. "Y desde allí prosiguió por el camino de las calzadas" Begoñako elizaraino, "despidiendo y quedandose los dichos señores del unibersal gobierno de la denotada villa al dejar la jurisdiccion de ella frente de dicho combento de la Cruz y camino de calzadas y estando en ellas contiguo a la primera cruz del calvario que esta para dicha yglesia" [Begoñakoa], "como sitio y paraje donde entra la jurisdiccion de esta dicha anteiglesia".

Goizeko hamar eta erdiak ziren. Bilbotarrek Begoñako fielei eman zieten irudia eta "les dieron gracias de haverles franqueado para la colocación en dicho combento de la Cruz". Begoñatarrek eskertu zieten "por el culto y beneración con que habían obsequiado a la santa ymajen durante la estancia en ella". Eta jarraitu zuten prozesioa "con el rosario cantado". Gero meza kantatuta egin zuten Begoñan.

### ZELAN ETORRI ANDRA MARI, HALAN BEHERATU URE

Egia esanda, Begoñako Andra Mari behin baino gehiagotan jaitsi izan da Bilbora. Lege Zaharrear, uriolak baretzera eroan izaten zuten. Geroago, 1900 urtean, ibilaldi entzute-tsua egin zuen Bilboko Zazpi Kaleetatik eta inguruetatik. Hona hemen euskal idazle batek, Abandoko Jose Paulo Ulibarrik, XIX. mende hasieran zelan idatzi zituen Begoñako Ama Birjinaren ibilaldi horietako batzuk:

1737. Zemendian egun lelengoan domu donzuen egune, beste uriola bat Bilbon, non bota eban ate asko eta heldu zan Jaun Done Santien elexako aldaria estaldu artian, eta eruan eban Jaun Done Praizku en zuba. Zoritzarreko urtea. Heldu zan Andra Mari Begoñeko ekarten bere adiskide bat gaiti. Ze adigarria zelan etorri geure Andra Maria halan beheratu zan ure. Espabere uri guztia eruango eban oño ondoti edo ekipe-ti. Ekauloia ibiltan zan zamariakaz ateretan jentia, beste batzuk batelakaz eta beste batzuk eskatuten autorgia leihorik leihora. Beste batzuk botetan eta irigiten ormak eta kitsutak guztiak juateko Begoñara gure Andra Mariri eskatuten euren gordekaia. Eta laster poztu zan egune, mila gauza igaroak, ze orain ezin imini dodaz.

1762. Maietzan 15 Uriola Bilbon ate nagosiko kisketa gino, baina ekarri artian geure Anra Maria begoñekoa eguan alan ure, eta etorri zanian Gurutze aurrera joan zan ure eta egin zituan kalte handiak buelletako errotetan eta Ibaizabalen eta merkatarien sotoetan.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99

# Mahatsorri bat Zaraitzun kargurik hartu ezinik

Ibarreko Batzarrera hautatu badute ere, Eneko Ribas baztertu dute bertakoa ez delako

bertan



Testua: J. Larrazabal  
Argazkiak: BERTON

Ezkaroze elurrez estalita

**Zaraitzu ibarra nafar Pirinioetako magalean dago, Otsagi dela bertako herririk ezagunena. Paisaia idilikoak dauzka asteburu pasa edo oporraldietarako, baina gogorra da gero bertan urte osoa ematea. Azken urteotan**



dia, izanda, landa-etxe bat egitea erabaki nuen, landa-turismorako. Ibiltzieta etxea. Geroztik hemen nabil etxea gestionatzen eta uda

**bertan bizi da Eneko Ribas mahatsorria. Ezkarozeko bere herritarrek Zaraitzuko Batzarrean euren ordezkari izateko hautatu dute baina Batzarrak ez du onartu. Arrazoa? Ez dela Zaraitzun jaio.**

aldean sortzen diren lanpostu ez iraunkorretan behar. Kargu publikorik eduki duzu inoiz? Ez. Beti ibili naiz talde soziokulturalan lanean boluntario gisa.

Zu Zaraitzu Ibarreko Juntarako hautatu zaituzte. Hala ere, ez zaituzte karguan onartu. Zergatik? Zaraitzu Ibarreko Batzarrak Zaraitzu Ibarreko herri lurrak gestiona-

tzen dituen batzarra da, eta hori egin izan du bostehun urte luzez. Gaur egungo Ordenantzen eta Legediaren arabera ibarreko herrietako udal batza osoak erabakitzen du herriko zein biztanlek ordezkatzeko duen herritar guztion borondatea Ibarreko Batzarrean. Pasa den udaberrian Ezkarozeko Udalak ibarreko batzarkide izendatu ninduen. Hala ere ordenantza zaharkitu batzuen aitzakiaz Batzarraren Plenoak, gehiengoz, ez gintuen onartu ez ni ez Sartzeko Udalak izendatutako pertsona.

Arazoa da ez garela Zaraitzun jaioak, ez garela bertokoak. 1976ko Ordenantzak bere 5. artikuluan dio: batzarkide titular edo ordezkari hautatua izateko, baldintza batzuk bete behar dira, haien artean b) puntua "bertokoa izatea edo bertoko emakumezko batekin ezkondu izatea". Izendatu nindutenetik kasik urtebete pasa ondoren hiru pertsona gara, hirurak Zaraitzuko biztanleak, egoera horretan aurkitzen garenok.

Zaraitzuko kargudun eta kargudun ohi batzuek zuen baztertua salatu dute. Oinarrizko eskubide zibilak urratu dituztela diote... 2004ko urrian Gortza, Sartz, Espartza, Ezkaroze, Jaurrieta eta Itzaltzuko alkateak, ibarreko batzarkide ohi eta batzarkide batzuekin batera ibarreko etxe guztietara zabalduz gure gutun batean diote, ez dela bidezkoa ez eta legezkoa ere pertsona bat diskriminatzea edo baztertua bere sorlekuagatik, eta Batzarra demokratizatu behar dela, besteak beste.

**Nortzuk dira kargua ukatu dituztenak?** Batzarrean dauden batzarkide gehienak. Baina hiru eseri leku hu-



Otsagi negu betean

tsik daude, eta beste bi funtzionarioak dira eta ordenantzen arabera ezingo lukete izan.

**Horrelako ordenantzek lehengo legeko gizarte baten itxura ematen dute. Horrelakoa ote da Zaraitzu?**

Ez. Zaraitzuko gizarteak modernoa izan nahi du, baina beldur handiak ditu, bidegurutzean dago eta ikuspegi desberdinak ditu etorkizunera begiratzeko. Pirinioetan bizitzea oso zaila da. Herri txikiak dira, biztanle gutxi, lana urri, despoblazioa, negu hotz eta luzea, bizitza sozial urria, hiritik urrun, populazio zaharkitua... Eta guzti horri buelta emateko badago jende ugari lanean.

**Herritarrek zer diote egoera horren aurrean?**

Gutxi batzuk ADN eta genetikaz hitz egiten duten bitartean badaude asko hiru urte ezin dutenak. Despoblamentuaren momentu kritikoa honetan Zaraitzura bizitzera datorren jendea bere eskubide

guztiekin ez onartzea oso arriskutsua da.

**Zer egin duzue ezezkoa jaso ostean?**

Prozedura legala. Errekurtsoak Batzarraren aurrean eta azkenean Iruñeko epaitegian Batzarraren erabakien kontrako demanda judiciala jarri dugu, oinarrizko eskubideak eta eskubide zibilak urratu dituztelako.

**Ordenantzak aldatzea posible ikusten duzu?**

Konplexua da baina alda daitezke. Kontsensu handia beharko genuke horretarako. Hala ere gu batzarkide izateko ez da ezer aldatu behar. Kasu honetan legediak baditu mekanismoak ibarreko bizitza sozial eta instituzionaletik bertokoa ez garenok baztertuak izan ez gaitezen. Ildo horretatik doa demanda judiciala.

**Zaraitzuko juntako kidea izango zara?**

Iruñeko auzitegiaren esku dago.

## Garraioak



Deitu:  
Jabi: 607 43 17 91  
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna Iturriaga, 92  
kazolatxoak eta pintxo goxoak



PRESOAK KALERA  
AMNISTIA OSOA!

Testua: Arrate Dics  
Argazkiak: Inigo Askola

# EGURALDI ZANTARRARI, MOZORRO ARATZA

SANTUTXUKO ARATUSTEAK GIRO EDERREAN OSPATU DITUZTE  
EURIARI JARAMONIK EGIN BARIK

Zer demontre ikusten da argazkian pentsatuko du askok? Ba, oso argi dago: dummiez mozorrotuta zihoan batek talka egin zuen Elektrotunaz jantzita zihoazen txarangakoekin. Argiago, ezin ikusi.

*Igande goizetik eguraldiak mesede handirik egingo ez zuela ematen zuen arren, Santutxuko jendea mozorroak jantzi eta pozarren irten zen kalera. Eguedian Karmelo kaletik ehunka pertsona abiatu ziren inauterietako desfilean auzoan zehar, musika, jaia, koloredun jantziak eta aldarrikapenak protagonista zirela. Igande osoan zehar kolorez jantzi zen auzoa eta jaiak gaueko azken ordura arte iraun zuen. Inauteri egun hau auzoko hainbat gaztek Santutxu kalean lokala okupatzen eman zuten bertan inauteri bazkaria ere ospatuz.*

Umetxo honek txistua joaz uste al du amatxok eta aitatxok berak nahi duen piruleta handi eta gozo hori emango diotela? Itxura horrekin jai daukala uste dute zenbaitek.



Auzoan agertutako deabrutxo hauek ezer txarrik egingo ez dutelako itxura ederrarekin... eta gainera barrezka... ni ez naiz batere fidatzen.

Inauterietan denetarik ikus daiteke eta oraingoan gure aiti-te-amamen garaian ikuzten zuten modua erakutsi ziguten andre hauek. Etorkizuna garai latz hauetan garbiago ikus dezagun adibide galanta. Hala ere, batzuek pentsatuko duzue, eskerrak garbigailuak asmatu direla, bestela, ez nukeen astirik izango ezta ligatzeko ere.



Musikaz blai desfilean eta oraingoan musikariak ere mozorrotu behar... koitaduak! nahikoa izango ez balute bezala hainbeste jendearentzat soinu ederra ateratzearrekin...



Eguno egiptiarrak ez dira garai batekoak. Antzina, milaka urte piramideak egiteko... eta oraingoak euritako eta bokadiloz betetako poltsarekin... hamaika ikusteko jaio gara!



Argazki hau komentatzean denbora gehiago eman dut garagardo kañari begira mozorroari berari baino ez ote da izango pitxar hori niretzat, ezta? Ez dauka itxura txarrik, bat ere ez.- Hala ere, argazkiko gainerrakoez gauza bera pentsatzen ari direla ematen dit. Auskalo zelan amaituko zuten hauek inauteri eguna... baina ideia gutxienez, benetan orijinala.



Mutiko honek gauzak oso argi ez dituela ematen du...galduko ote zen hainbeste kaleren artean? Beharbada gizajokoak berriro ere kale egin du. Animo!



Klausurako moja hauek auzoko gaztetxearen aldeko aldarrikapenak egiten...ez ote da izango nahi baino urte gutxiago eliza ondoan egon arren moja bihurtu direla? Nork zor die gaztetxea sor hauei, Udalak baino?



Momentu latzenetan ere irribarrerik onena ateratzeko indarra daukate gazte hauek. Sorgintxuloko maskotaz mozorrotu eta jaiarekin bat auzoarentzako lokal autogestionatua aldarrikatzeko momentua da. Gora gazte indarra!


Lagun talde honek Veneziako inauteriak dakartzkigu auzora, ... ederto, baina, ez al dakite Mahatserriko aratustek baino hobeagorik ez dagoela, ezta Venezian ere. Halakorik!



Hainbeste jenderen artean inork ez ote dio zauritu honi laguntzarik eskainiko? Hartu duen ostiye arnasa kentzekoa modukoa izan ei da, baina, hori bai, oinetan ez du inongo zauririk egin, deportibak ikutu barik dauzka eta.

# Bilboko euskaldunon ondarea CDan eta liburuan

## Iñaki Gaminde Bilbotarron euskararen zuzuan



Liburudendatan eta Txurdinagako AEKn salgai



e  
l  
k  
a  
r  
r  
i  
z  
k  
e  
t  
a

# Jose Maria Otsoa de Txintxetru

## "Gerra zibilaren zauriak ez dira egundo itxiko"

Begoña herria zenean jaio zen Jose Maria Otsoa de Txintxetru mahatsorria, Krutzeberde auzoan. Bere aita Begoñako zinegotzia izan zen 1931n. Jose Mari baserririk baserri ibili zen aitaren aldeko propaganda banatzen. 1936an bere borondatez joan zen faxistei aurre egitera. Geroago, kartzela, sarraskiak, mendekua eta erresistentzia ezagutu zituen. EAJko Bizkai Buru Batzarreko kidea izan da. 995etik, EAJko gudariak batzen dituen Euzko Gudarosteko lehendakaria da. Gerran eta gerra ostean ikusi zuena kontatu behar duela uste du. Bere 87 urteekin, ederto egiten du.



Testua: Hektor Ortega  
Argazkiak: Iñigo Azkona

U  
G  
U  
D  
N  
O  
T  
E  
R  
E

A  
K  
A  
R  
K  
A  
I



**Zelan jakin zenuen, 1936ko uda hartan, militarren altxamenduaren berri?**

Nik Euzkadi periodikoan egiten nuen lan eta peritu industrial ikasketak egiten nituen aldi batera. Uztailaren 17an tele-tipoek Franco Afrikan matxinatu zela esaten ziguten. Uztailaren 19an errebolta zabaldu zeneko berriak heldu zitzaizkigun. Ni Basarrateko landan nengoen, Karmenen errepikapenaren erromerian. Handik batzokira joan ginen eta batzokitik Gobernu Zibilerara. Han pistolak eman zizkiguten.

**Bilbon Garelano militarren matxinatuta zeuden?**

Ez. Ahalegin bat egin zuten baina sargentuek eta eragotzi zuten. Arma horiez elizak eta komentuak babestu genituen, lehenengo egunean Kontzepzio komentuari su eman zioten eta.

**Hortik aurrera gerra zabaldu zen...**

Bai. Gerotxoago EAJk Errepublikaren alde jardutea erabaki zuen. Begoñako batzokian 36 aliatu ginen, boluntario. Nik Santutxuko Jesus Zabalen aurrean firmatu nuen. Zabala gero fusilatu zuten. Gero prestakuntza militarra hartu genuen Deustuko Bidarten. Han geundela Eusko Jaurlaritzak erositako txekiar arma batzuk heldu ziren eta gu Garella-

nora bidali gintuzten jasotzera. Han Estepan Urkiaga 'Lauaxeta'rekin topatu nintzen eta esan zidan: 'Jose Mari, nor esango euskun guri espainiar kuartel batera etorriko ginala Euzkadi defendatzeko armak hartuten, e?'. Lau konpainia osatu genuen eta irailaren 24an Bilboko Patronatoan batu gintuzten, Juan Ajuriagerrak berba egin zigun eta abade batek absoluzioa eman eta esan egin zigun: 'zuetako batzuk bihar hilik egongo zarete'.

**Eta handik borrokatzera?**

Bai. Autobusetan sartu eta Eibarrera. Goizean goiz Ziardamendi mendira igo ginen. CNTkoak ordezkatu genituen. Hara heldutakoan lehenengoa jausi zen, Txintxurreta. Gero sei gehiago. Felipe Elorriaga eta biok elkarrekin geunden. Halako baten esan zidan, "Jose Mari, jarri apur bat harantzago". Ni mugitu nintzen eta bera ni egondako lekuan paratu zen. Handik minutu gutxitara bala batek burua zulatu zion eta zerraldo gelditu zen. Ni ere zauritu ninduten, lau balakada hartu nituen. Lehenengo Markinara eta gero Bilbora eraman ninduten. Etxean egon nintzen zauriak sendatzen.

**Eta atzera be frentera?**

Azaroan Durangora joan nintzen Kirikiño batailoira, bertan anaia zegoelako komandante gisa. Ni ofizialorde gisa egin nuen gerra denbora batailo horretan. Martxoaren 31n Durangoko bonbardaketak bertan harpatu ninduen. Eta apirilaren 26an Gernika bonbardatu zutenean ni handik atera berria nengoen. Muxikatik ikusi genuen. Gau hartan Algortako Ige-retxen geunden eta handik Gernikako suaren gorria zeruan ikusi genuen. Hori grabatuta daukat. Ekainaren 18an Bilbo hartu zuten. Gu Turziozera joan ginen eta han Jose Antonio Agirreraren deklarazio historikoa entzun nuen. Han ere egon nintzen!, kar, kar.

**Eta gero?**

Handik Laredora joan ginen. Frantziara zelan pasatu ikusten ari ginen. Guk burukideei kantatzen genien, La cucaracharen doinuaz, 'Llevame a Francia, llevame a Francia, aunque sea en avión, cuando volvamos, yo te prometo llevar-te al circo Feijoo'. Baina egun baten Juan Ajuriagerra etorri zitzaigun eta esan zigun, doinu horrekin, 'La evacuazione, la evacuazione, no se puede realizar, porque no tiene, porque le falta, barquitos pa' navegar'. Eta jota utzi gintuen... Hilaren 27an italiar tropak Santonán sartu ziren. Biharamunean ofizial guztiak Santonán portura joan ginen eta hara non Arlaban Mendi barkua agertu zen eta Espainiako kapitain bat eskalatik kaira jaitsi zen. Ni Mancini mariskalarengandik metro eta erdira

nengoen. Espainolak paper batzuk eman zizkion baina italiarrak ez zizkion hartu nahi izan. Eta esaten zion: "Venimos a recoger a los oficiales rojos". Eta Mancinik: "Oficialidad y ejercito vasco, prisioneros del Ejercito italiano". Besteak ekin eta ekin baina Mancini haserretu zen eta espainola barkura joan zen.

**Eta zuek preso gelditu zineten Santonán?**

Bai. El Duesora eraman gintuzten. Hasi-ran italiarrekin ederto baina irailaren 2an italiarrak joan ziren eta espainolak sartu ziren. Eta, jakina, gauzak aldatu ziren. Biharamunean hasi zitzaizkigun deklarazioak hartzen. Nirea irailaren 6ko 5. zenbakidun epaiketa izan zen. Behealdeko ziegatan epaile bana mekanografo banarekin paratu zituzten. Guztira, hamabost bat epaile militar. Eta gu, gure xaloan,

egia deklaritzen hasi ginen: gure graduazioa, ... Inozente hutsak izan ginen gerra osoan. Eta epaile batzuek esan ziguten: "baina egia esaten ari zarete, txantxetan hartu duzue hau... Gu Malagatik gatoz eta han inork ez du ezer aitortu!". Egia da brometan hartu genuela eta Ramon Azkuek esan zigun: "ez dugu txantxetan hartu behar jende modu hori edozer egiteko gauza da eta". Hamabost egun geroago Azkue fusilatu zuten eta alderdi bakoitzeko bina ofizial fusilatu zituzten: jeltzale bi, CNTko bi, ELAko bi, sozialista bi, komunista bi...



**Zuri zer kartzela zigorra ezarri zizuten?**

Niri behin betiko kartzela ezarri zidaten lehenengo baina gero hogeituroko kartzela zigorra sinatu nuen. Egun baten, burua galduta zebilen galiziar mutiko

bat patioan hasi zen 'Viva la República!' deiarrez. Zaindariatako batek, bere onetik aterata, hil egin zuen. Gu zarataka hasi ginen protestatzeko. Ez zen gehiagorik gertatu. Franco Burgosen zegoen eta gertatutakoa kontatu ziotenean mutina izan zela pentsatuta-edo, biharamunean ziega bakoitzetik preso bana ateratzeko agindu zuen. Gau ikaragarria pasatu genuen. Biharamunean 49 preso fusilatu zituzten.

**Zenbat denbora eman zenuen El Dueson?**

Urtebete. Handik bagoietan Puerto de Santa Mariako espetxera eraman gintuzten gutako batzuk. Han urte bi eman nituen. Momentu baten, Francok ikusi zuen milaka lagun zeukala preso kartzeletan eta batzuk askatu behar izan zituen. Handik Valladolidera eraman



gintuzten eta bost hilabete geroago, 1940ko abuztuaren 8an baldintzapeko askatasunean atera nintzen. Ni Agurainera joan nintzen, bertan nire osaba bi bizi ziren eta. Han urtebete egin nuen baina soldaduska egitera deitu zidaten. Aurkeztean aukera bi ematen ziguten: legionera boluntario joan edo, bestela, langileen batailoi batera. Nik boluntario, inora be ez. Mirandako campo de concentración batera eraman ninduten. Han ezagun batek kontatu zidan poloniar ofizial preso batzuk nola sarraskitu zituzten, errekatxo baten ondoan.

#### Eta handik?


Handik Algecirasera, pala eta pikua eragitera. Han egun baten intendentzia kabo bat agertu zen, Txiki, Isidoro Fernandez de Eribe, Begoñakoa, Matxarratiakoa. Bertako 'alkatea' zen, nahi zuena egiten zuen. 'Zer egiten duzue zuek hemen?', esan zigun. Eta batzuk okindegi batera, beste batzuk beste leku batzuetara baina handik atera gintuen. Ni okindegira bidali ninduen. Egun baten gobernadorearentzat eta enparaentzat labekada bat egin behar genuen eta urunean txiza egin genuen. Ez zen inor hil!

#### Gaixotuko ziren behizat!

Ezer ere ez, kar, kar. Eta gau baten Radio Algecirasen kantatu genuen, 'coro vasco Lamiak' izenarekin. Euskal abestirik subertsiboenak abestu genituen, 'Eusko Gudariak' ere, eta ez zen inor konturatu.

#### Langileen batailoian zenbat denbora eman zenuen?

Han zortzi hilabete. Gero. Sondikako langileen batailoira ekarri ninduten. Algotako kontratista batentzat egiten genuen lan. Guri ez zigun ordaintzen baina berak gure lana kobratzen zuen! Eta gero kalifikazio politikoa aldatu zidaten: 'desafecto' tik 'indiferente' ra. Eta Garellanora joan nintzen soldaduska egiten. Amerikarrak etortzekoak ei ziren eta gu Plentzian eta Armintzan egon ginen metrailadore bategaz, zain. 'Si vienen, nos mean!', pentsatzen genuen. Gero Murtziako Lorcara. Eta azkenean libre joan nintzen Agurainera. Eta urtebete geroago lehengusuak etorri zitzaizkidan Transportes Ochoako delegazioaz arduratzeko esanez. Eta han ibili naiz. Erresistentzian ere ibili nintzen baina horretaz ez dut berba egin gura, horrela zin egin genuelako.



#### Ez duzu kontaktuko?

Ez. Aldean eramango dut kanposantura.

#### Gerra zibil bateko zauriak inoiz ixten dira?

Egundo ez, gure gogoan ditugulako. El Dueson heriotza zigorra ezarri zietenak Derioko kanposantuan fusilatu zituzten 1937ko abenduan. Mende erdi geroago erregistroan fusilatu horien heriotza-agirien bila ibili nintzen eta topatzean ikusi nuen ez dutela argitzen non eta zelan hil ziren. Hainbeste gestio egin ditugu eta orain lortzekotan gaude, epaileak baietza eman digu, agiri horietan ager dadila zelan eta non hil ziren. Euzko Gudarosteako lehendakari gisa hori izango da nire poz handienetako bat. Denborak dena sendatzen omen du. Hein baten horrela da. Nik dena barkatu dut, kristaua naizen aldetik. Baina pertsona askori egindako gaitzakeriak kendu behar dira, pertsona horiek ziren bezain jator eta ondraduak ager daitezten. Ez dadila berriro gerta!

#### Gaurko gazteek gerra eta ondorengo urteetako kontuen berri jakin nahi dutela uste duzu?

Askok bai. Gerran eta hurrengo berrogei urteetan euskaldunak birrindu gaituzte, bortxatu gaituzte. Ikaragarriak entzun eta irakurri behar izan ditugu... Areilza alkateak Bilboko Udaletxean bota zituenak! Gernikakoa... Baina egia da gazteenentzat gerra zibila eta Kubako gerra, berdin, antzinako kontuak... Nik beti daukat gogoan ikusi nuen kontakatu behar dudana.

#### Zer egiten duzue Euzko Gudarostean?

Urtero-urtero Gudari Eguna egiten

dugu. Azken urteotan Sabin Etxean egiten dugu, denok 85 urtetik gorakoak gara eta. Meza bat egiten dugu, gero nik testu bat irakurtzen diet eta ostean bazkaria egiten dugu. Eta denok pozarren!

#### Egunokaz polemika be badago, Eusko Jaurlaritzak eman behar duen diru laguntzaren zuzuan...

Bai. Javier Madrazok hori egiteko adorea eduki du. Aspaldian Madrileko gobernuak ere milioi bat pezeta eman zien kartzeletan hiru urte baino gehiago eman zutenei. Niri ez, hiru urte baino zortzi egun gutxiago egin nituen eta. Orain Madrazok egin du, baina jakinda denei ezin izango diela eman, askok ezin dutelako demostratu. Langile Batailoietan ibilitako askok, esate baterako, ezin dute frogatu. Egunen baten, paper barik, besteen testigantzak ere aintzat hartu beharko dituzte, froga gisa. Baina Madrazo ausarta izan da. Nire alderdiak ere ez du egin! Egia hori da. Nire alderdiak ez du ezer egin.

#### Euskal gizarteak merezi bezala omendu ditu 1936ko gudari eta miliziarrik?

Zer egin daiteke? Errekonozimendu morala. Lehengo egunean Portugaleten elkarte bat sortu genuen gudariaren omenezko monumentua egiteko. Monumentu ederra izango da eta Bilbon paratuko dugu. Alderdi guztietako hamalau lagun elkartu ginen, denak 80 urtetik gorakoak: jeltzaleak, komunistak, CNT, sozialistak... Baina monumentu hori ez da bakarrrik gudariaren omenez izango, Euskadiren eta Errepublikaren alde borrokatu zuten gudari eta miliziar guztien omenez baino.

## Kyotoko protokoloaren aurrean, itxaropena ala mesfidantza?



#### AITOR (SANTUTXU)

ITXAROPEN GUTXI DAUKAT. KUTSADURA GEHIEN SORTZEN DUTEN HERRIALDEAK (EEBB, TXINA ETA ERRUSIA) EZ DIRELAKO ITUNEAN SARTU. HALA ERE, MAILA PERTSONALEAN ZERBAIT EGITEN HASTEKO BALIO DAITEKE.




#### MARÍA ANGELES (SANTUTXU)

KONTZIENTZIA PIXKA BAT HARTZEKO ONA IZAN DAITEKE.



#### JUANAN (SANTUTXU)

POLITIKARIEK, BETI BEZALA, GURÍ LEPORATZEN DIGUTE ERRUA BAINA GUK EZ DUGU SOLUZIORIK. HAIK JARRI BEHAR DUTE IRTENBIDEA.



#### AMAIA ETA OIHANE (SANTUTXU)

HERRIALDE HANDEK EUREN AURPEGIA GARBITZEKO ANTOLATU DUTE. HORI BAINO EZ DA.



#### JOSE (OTXARKOAGA)

GEHIEN KUTSATZEN DUTEN HERRIALDEEK EZ BADUTE HORRETAN SARTU NAHI, NAHIZ ETA PROTOKOLOA BERA ONDO EGON EZ DUT USTE NAHIKOA IZANGO DENIK.



#### GARBIÑE (SANTUTXU)

ESATEN DUTENA EGITEN BADUTE ONDO EGON DAITEKE. BAINA AGINTARIEK BETI GURE ERRUA DELA ESATEN DUTE ETA HORI EZ DA HORRELA.


## Mahatserrian azkenokaz izan direnak

### Eusko Trenek Etxebarri eta Zazpi Kaleak lotuko ditu Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaran eta Uribarritik pasatuz

#### Lur azpiko trena izango da eta 2010 urtean hasiko ei da zerbitzua

*Bizkaiko Garraio Partzuergoak Etxebarri eta Zazpi Kaleak artean lur azpiko trenbide berri bat egitea erabaki zuen otsailaren 23ko batzarrean. Geltokiak Otxarkoagan, Txurdinagan, Zurbaranbarrin eta Uribarrin paratuko dituzte. Zerbitzu berria, 2010 urtean hasiko ei dena, ez da Metro Bilbaoren esku geldituko, Eusko Trenenenean baino.*

Tren lerro berriak Etxebarriko metro geltokian edukiko du hasiera. Hurrengo Etxebarriko San Antonio auzoan egongo da eta horixe baino ez da egongo lur azalean. Gainerako guztiak, beraz, lur azpian. Etxebarritik Bilbora etorrira, lehenengo geltokia Otxarkoagan egongo da eta ondoren Txurdinagan, Zubaranbarrin eta Uribarrin. Azkena, Zazpi Kaleetako izango da. Bertan metroarekin eta Eusko Trenen Txori-herriko lerroarekin lotuko da.



Bidaia txartela ere bakarra izango ei da zerbitzu berria martxan hasi orduko.

Finantzaketari dagokionez, 126,5 milioi euro beharko dira obra osoa egin ahal izateko. Bizkaiko Garraio Partzuergoak %75 hartuko du bere gain. Gainerakoa, Gasteizko gobernua eta Bilboko Udalaren esku geldituko da, zelan banatu erabakitzeke bien artean akordioa

egin beharko dutela.

#### KRITIKAK

Otxarkoagako familia elkarteak (AFO) gogor astindu du Iñaki Azkuna alkatea eta gainerako agintariak Eusko Trenen proiektu berri hori dela eta. Izan ere, Otxarkoagako auzoek "bere berba bete dezala" eskatu diote bilbotar alkateari. Bere kanpainan Azkunak metroaren hirugarren lerroa egiteko baliabideak jarriko zituela agindu zuen. "Orain eskaintzen digutena -dio AFOk- ez da metroaren hirugarren lerroa eta proiektu hori kolokan jartzera dator gainera".

Izan ere, auzoek eskatzen dute Otxarkoaga eta Errekalde batuko duen proiektua -horixe zen hirugarren lerroa-gauza dezatela. Euren ustez, Zazpi Kaleak-Etxebarri trenbide berri horrek ez du beharizan hori beteko eta gainera ez da metroaren lerro berri bat.

**ASTE SANTUA (23-28)**

Galizia	169 Euro
Salou	226 Euro
Benidorm	222 Euro
Paris	245 Euro
Lisboa	239 Euro

**Izargi Bidaiak**

GRUPO STAR

Burriaga, 69  
Tel. 94 473 90 45  
Fax 94 412 07 28  
48004 SANTUTXU - BILBO

**KAIKU**

Munduko Herrien Baxea

Arzuaga 1 Santutxu

**ADI**

Oleta, s/n - 48970 BASAURI  
Tel. 94 426 08 08

**ASESORIA**

RICAL, CONTABLE, FISCAL, JURIDICO - MERCANTIL

Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO  
Tel. 94 411 08 55  
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza**

## Sorgintxulokoek gaztetxe berria okupatu zuten inauteritan

Egunez piztutako argia iluntzean amatatu zen, Ertzaintzak gazteak kaleratu zituen eta

*Otsailaren 13an, Santutxuko inauterien egunean okupatu zuten gazteek Santutxuko gaztetxe berria. Eguerdia aldera hainbat gazte Santutxu kaleko BBKko bulegoak zaharretara -zazpi urte egin dute hutsik- sartu ziren. Ekintza horrekin Sorgintxulokoek abenduaren 16tik auzoak*

*daukan gune sozio-kulturalen faltari aurre egitea zuten helburu. Abenduaren 16an Bilboko Udalak udaltzainak eta Ertzaintza bidali zituen gazteak sei urtez mantendu zuten lokaletik kalera-tzeko. Harrez gero hainbat gazte eta auzoko kolektibo kale gorrian geratu dira.*

Testua: Eneritz Ibarondo  
Argazkiak: BERTON

Gaztetxe berria okupatu bezain laster hasi ziren inguruak jendez betetzen. Gazteek dena zeukaten prest: batzuek lokala konpontzen zuten bitartean, beste batzuek idazkiak banatzen zituzten auzokideen artean egiten zutena azaltzeko... Ertzaintzak hala ere ez zuen denbora askorik behar izan bertan azaltzeko. Hainbat gazte identifikatu eta alde egin zuten ondoren.

Sorgintxuloko gazteek lokal berria atontzen eta gauzak prestatzen eman zuten eguna. Urtero Sorgintxulon egiten



Gazteek okupatutako lokalaren atea.



Gazteek kalejira egin zuten.

zi asmoz. Poliziak jarrera bortitza azaldu zuen eta ondorioz, hainbat tentsio une izan zen. Karga batzuk egin zituzten, eta bertan bildutako jende ugari kolpeak jaso zituen.

Gazteek okupatutako lokalak zazpi urte daramatza hutsik eta lehenago Gaztedi dantza taldeari eskaintako lokala da. Gaztedi ezezkoa eman zuen ez zituelako euren betebeharrak asetzen eta trukean beste lokal bat eskaini zieten. Sorgintxulokoei ordea, ez diete inolako aukerarik eman eta aurreko lokala hustu zutenetik, kale gorrian utzi dituzte.

#### ERANTZUNA

Otsailaren 17an kontzentrazioa burutu zuten Sorgintxulokoek Karmelo plazan 'Gaztetxe gehiago errepresio gutxiago' lemapean. Berrogei bat lagun bildu ziren eta honekin gaztetxe baten beharra aldarrikatu nahi izan zuten. Igandean gertatutakoa salatu zuten, eta EAJK "gazteriaren aurka daukan jarrera" gogor kritikatu zuten.

zen inauterietako bazkaria ere bertan egin zen, jende ugari bilduz. Arratsaldeko zortziak inguruan, ordea, Ertzaintza berriro ere gaztetxean agertu zen, oraingoan gazteak indarrez kaleratzeko. Barruan bildutako gazteak aterarazi zituzten banan banan eta guztiak identifikatu zituzten. Hamarrak laurden gutxiak aldera atera zuten azken gaztea bertatik. Bitartean, lokalaren inguruan jende ugari bildu zen auzoko gazteei elkartasuna adiera-

BERRIKARRIAK

BERRIKARRIAK

# Santa Ageda, Ageda, makilakaden legea

Urtero legez, gure auzoetako eskoletako umeak kalerik kale ibili ziren zezeilaren 4ean Santa Ageda bezperaz. 'Aintzalduta daigun Agate Deuna...' eta bestelako doinu zaharrez eta egun horretarako beren-beregi prestatutako koplez bazterrik bazter kantuka jardun zuten. Guk orri honetan ikusten dituzunak topatu genituen kalean.



### URIBARRI ESKOLA.

Plaza bete jende esaten dugunean, argazkian ikusten dena da. Eguerdian Uribarriko eskolako ikasleak plazara irten eta, irakasle eta aita-amen laguntzaz, santa ageda kantatzen hasi ziren. Polita, benetan!



### ZURBARAN ESKOLA.

Zurbarango eskolako jolastokian batu ziren umeak Santa Agedaren omenezko kantuak lau haizetara zabaltzeko. Goian, aita-amak, kamerak eskuetan, seme-alabak topatu guran.

### KIRIKIÑO IKASTOLA.

Basarrate landan topatu genituen Kirikiño ikastolako ikasle koadrila bat errondan. Ikastolako talde gehiago be ibili ziren hara eta hona. Hauek eskarmentua zeukaten. Ez zen, ez, lehenengo Santa Ageda bezpera!



### KARMELO IKASTOLA.

Txikerrenetakoak ziren guk Basarraten ikusi genituenak. Baina eurak be santa ageda bezpera gogotsu ospatu zuten. Ai ze ederto ibili ziren kantu kantari andereñoekin!



# Aspanovasek, minbizidun umeen aldeko elkarteak, Santutxun lokal bat zabalduko du

Aspanovas elkarteak egoitza berria zabalduko du Santutxuko Antonio Egiluz medikuaren kalean. Bizkaiko minbizidun haurren gurasoen elkarte honek 1989ko maiatzean ekin zion lanari. Harrez geroztik urratsez urrats helburuak betez aurrera egitea lortu dute.

Testua: Alberto Ugarte

Azkeneko helburuetako bat egoitza berria zabaltzea zen. Hori ere lortu dute latz eta etengabe lan eginez. Otsailaren 15ean minbizidun haurren nazioarteko eguna zela kontuan hartuta horretaz guztietaz elkarreko zuzendaritza taldeko Lutxi Calvoren eta Pedro Ruizekin hitz egin genuen.

Egoitza berrian hartu gintuzten Aspanovaseko lagunek. "Lehenengo egoitza ez zen bat ere egokia, pisu bat zen, Zazpi Kaleetan, txikia", esan zigun Lutxi Calvok. Santutxuko soto hori ikusi zutenean gustatu egin zitzaion. Kontuan hartu behar da ume batzuek mugitzeko zailtasuna daukatela, beraz, hemendik aurrera eskailerak igo eta jaisteko arazorik ez da egongo.

Gainera metroko ahotik oso hurbil dago. Horrek erraztuko ditu kideen arteko hartu emana eta burutzeko gogoan dituzten tailer, hitzaldiak eta gainerako kontuak.

Gaur egun egiten dituzten lanak, hau da, astean behingo kontsulta psikologikoa, administrazio lanak eta zerbitzu sozialetakoak izango dira egoitza berrira aldatuko dituztenak. Hala ere, lokal handi horrek ahalbidetuko du bestelako ekitaldiak egitea, hala nola, arestian aipatutako minbizidun haurrentzako tailerrak, hitzaldiak...

### GUREAN HAMBOST BAT

Mahatserrian 10-15 ume izango dira minbizia dutenak. Elkarteak, guztira, 308 izango dira minbizidun umeren bat duten familiak. Laguntzaileekin batera mila inguruk osatzen dute elkarteak. Euren arloa oso zabala dela azaldu



zigun Pedrok: "Gure elkartearen denetarikoa umeak daude; itsuak, herrenak, orekarik ez dutenak, gorpil aulkian ibili behar dutenak eta, baita ere, normaltasun osoz bizitzera egiten dutenak". Horregatik Bizkaiko minusbaliatuen koordinakundean parte hartzen dute.

Samintasunez hitz egiten dute. "Guk nahi duguna da gure umeak pertsona normalak bezala bizitzea. Problematika hau ezagutzera eman nahi dugu. Minbizidun haurrak badira. Gogorra da zure umeak minbizia duela esaten dizutenean. Bakarrik sentitzen zara. Elkartearetorrita, berriz, jende gehiago badela ikusten duzu eta horrek indarra ematen dizu".

Zuzendaritzako kideak boluntarioak dira. Minbizidun haurrak izatea gertutik ezagutzen dutenak. Zorionez laguntza jasotzen dute herri erakunde, udal, entitate pribatu eta batez ere BBKren obra sozialetik. Horri esker zabaldu ahal izan dituzte Gurutzetako ospitaletik 500 metrora daukaten pisua eta oraingo Santutxuko egoitza. Bestelako laguntzak ere jasotzen dituzte. Adibidez, Santutxuko Berrio-Otxoa ikastetxe boluntarioek laguntzen diete gabonetako haur parkean

Egoitza berriarekin helburu nagusienetako bat bete dute, hala ere, beste helburuak sortuko dira gizarte arazo honetaz jakitun egoteko eta arduraz joka dezan. Hurrengo zitak hurbil daude. Aste santuaren ostean egoitzaren zabalpen ofiziala egingo dute eta maiatzaren 22an Osasun krosa Getxon.

**urretxindorra**  
megadenda

9'30etatik  
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 26 (48011 Bilbo)      urretxindorra@megadenda.com  
Tfnoa: 94 4240228      www.megadenda.com

**SAN TXU**  
EUSKAL ESKOLA

iven a aprender euskara!  
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet,9 Santutxu      Arbidea,21 Txurdinaga  
4731460      4117656

# MARTXOAREN 13TIK 18RA EUSKARAREN ASTEAK SANTUTXU ETA TXURDINAGA EUSKARAZ MELATUKO DU

*Inoiz baino babes zabalagoaz dator aurten Santutxu eta Txurdinagako Euskararen Astea. Bosgarren edizioa martxoaren 13tik 18 bitartean egingo dute eta, bide batez, martxoaren 20an agertuko den Korrikarako giroa berotuko du. Antolakuntza lanetan hamalau ikastetxe dabilta eta, eurekin batera, Santutxu eta Txurdinagako elkarte asko.*

Testua: L. Albarez  
Argazkiak: BERTON



Luis Briñas eskolak ere parte hartzen du Euskararen Astean. Argazkian, aratustetan ikasle talde bat eta irakaslea mozorrotuta.

Euskararen Astearen bosgarren edizioa ate joka daukagu. Domeka baten hasiko da, martxoaren 13an alegia, eta hurrengo barikua bitartean hainbeste ekitaldi egingo dituzte. Bost urteotan bilakaera ikusgarria eduki du Euskararen Asteak. Izan ere, lehenengo edizioa bost ikastetxe batu ziren euskararen erabilpena sustatzeko. "Ikastetxe horietatik pentsatu genuen hezkuntzaren eta auzoa-

ren arteko elkarlana beharrezkoa zela eskoletan egiten den ahalegina osatzeko", esan du antolatzaile taldeko Tasio Erkiziak.

Arazoaren mamia euskararen erabileran zetzan eta datza. "Gaztetxoek euskaraz ez badute egiten hizkuntza galdu egiten dute eta, ondorioz, ikastetxeetako ahalegina antzua bilakatzen da. Eguneroko bizitzan euskara erabil-

tzeko bideak eskaini behar zaizkie", argitu du Erkiziak.

2001eko Euskararen Asteak bost ikastetxeren inplikazioa lortu zuen. Aurten hamalau dira, sare publiko zein pribatukoak, lehen eta bigarren hezkuntzakoak.

Euskararen Astea hiru esparrutan banatzen du bere egitaraua. Alde batetik, ikastetxe bakoitzak, autonomia osoarekin, bere baitan hainbeste ekitaldi antolatzen ditu. Bestetik, ikastetxeen artean egitarau zabala prestatzen dute. Eta, azkenik, Santutxu eta Txurdinagari begira egiten diren ekitaldiak, auzoko elkar-teekin elkarlanean.

"Ikastetxe batzuentzat urte osoko lanaren gailurra da, beste batzuentzat urrats gehiago emateko abiapuntua da, edo hizkuntzaren normalkuntza prozesuan aurrera egiteko", zehaztu du Tasio Erkiziak. Bost urteren buruan, Euskararen Astea 'erreferentea da, denentzat. Guztiz finkatuta dago eta euskararen arloan gutxi egiten duten ikastetxeek ere lagungarri ikusten dute", azaldu du. Gainera, kanpotik ere horrelaxe ikusten dute, hala hezkuntza arloan normalkuntzaren ardura daramatenak nola Bilboko Udaleko Euskara Zerbitzua.

## NOBEDADEAK

Aurtengo berrikuntzei dagokienez, ikastetxeen arteko ekitaldietan kontu berri bi daude. Alde batetik, pailazo euskaldunen saio bi prestatu dituzte, Berriotxoa ikastetxean eta Txurdinagako kiroldegian. Bestetik, Kulkirekin ume jokoak egingo dituzte ikastetxeetan.

Beste aldetik, martxoaren 18an, barikua, 'gazteria euskaraz blai' arratsaldea atondu dute. Aurreko urteetan ere egin izan da baina aurten indartsuago dator: trikitalariak, bertsokak, kale animazioa, jokoak, aerobic eta kantuak



Txurdinaga eskola Euskararen Astean parte hartzen duenetako bat da. Argazkian, otsaileko aratustek ospatzen.

Anje Duhalderekin. "Antolakuntza lanetan -esan du Erkiziak- gero eta gehiago dira gazteak eta hori pozgarria da, oso".

Bosgarren Euskararen Astearen antolakuntzan hamalau ikastetxe hauek hartu dute parte: Ronda kaleko Hijas de la cruz, Txurdinagako herri eskola, Berriotxoa ikastetxea, Ave Maria ikastetxea, Santutxu BHI, Karmelo-Solokoetxe BHI, Luis Briñas herri eskola, Angeles Custodios ikastetxea, Mina del Morro herri eskola, Maristak-El Salvador ikastetxea, Karmelo ikastola, Gabriel Aresti institutua, Txurdinaga Artabe institutua eta Txurdinaga Behekoa institutua. Gainera, Karmelo ikastolako, Gabriel Aresti, Briñas eta Solokoetxeko guraso elkarteek ere parte hartu dute.

Talde askok ere lagundu du. Besteak beste, Gaztedi, Santutxuko auzo elkarte, Santutxuko gazteak, Ernai, Berrbie, Sorgintxulo, Asapala, AEK, EHE, Samasiku, Artagan, Garoa eta Santutxuko jai batzordea.

## SANTUTXU-TXURDINAGAKO V EUSKARAREN ASTEA

**Martxoak 13, domeka**

**Dantzari Eguna**

10:30. Diana.

11:00. Dantzarien bateratzea Karmelo plazan.

11:30. Auzoko plazetan dantza emaldiak.

13:00. Dantzari taldeen desfilea.

14:00. Bazkaria.

17:00. Dantza agerraldia Etxebarria plazan. Euria egitekotan, Berriotxoko kiroldegian.

**Martxoak 14, astelehena**

**Euskaraz kantari**

15:15. Eskolarteko kanta lehiaketaren finala. LHko 6. mailakoa eta DBHkoak Txurdinaga Behekoa institutuan. Lehen hezkuntzakoak, Maristasen.

**Martxoak 15, martitzena**

**Zinea euskaraz**

20:00etan. Laburmetraiak. Begoñako udaldegian.

**Martxoak 16, eguaztena**

**Jalgi hadi plazara**

-Goiz eta arratsaldean Santutxu-Txurdinagako plazetan ume jolasak.

-Pailazoak. 10:00etan Berriotxoa ikastetxean eta 15:00etan Txurdinagako kiroldegian.

-Irakurlearen tartea. 20:00etan Patxi Gallego Arbideako euskaldegian.

**Martxoak 17, eguena**

**Bertso eguna**

10:00. Kulkirekin ume txikerrentzat jolasak Berriotxoa ikastetxean.

12:30. Bertso saioa Solokoetxe ikastetxean.

15:15. Bertso paper lehiaketako sari

banaketa eta bertso saioa Txurdinaga Behekoan.

**Martxoak 18, barikua**

**Euskaraz jolasten**

11:30. Korrika Txikia Txurdinagan.

15:15. Korrika Txikia Santutxun.

Arratsaldean: Gazteria Euskaraz blai.

15:30. Trikitalariak, bertsokak eta ondoren kale animazioa Karmelo plazan.

16:30. Altxor ezkuaren bila. Jolasa.

18:00. Korrikaren aurkezpena.







18:15. Euskal kulturaren lehiaketa.

19:30. Aerobic ere euskaraz.

20:45. Santutxu kantari. Anje Duhalde eta beste musikari batzuen laguntzaz, Karmelo plazan hasi eta auzoko plazetan jarraitu.

**Martxoak 20, domeka**

10:00. Korrika dator.



# MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

## hartu bertin etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertin aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena: .....

Abizenak: .....

Kalea: ..... Zenbakia: ..... Solairua: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... Posta Kodea: .....

Telefonoa: .....

Bankua: .....

Kontu zenbakia (20 digito): .....

# DOHAIN

# DOHAIN


Sinadura

## LEUNGANA (1009 M.) ETA ARTATXAGANA (998 M.) MAÑARIA

Durangotik (A) joan ginen Mañaraino eta herri horretako plazan utzi genuen kotxea pilotaleku ondoan. Pilotaleku ondotik errekatxo bat zeharkatuko behar da zubi txiki batetik, ondoren ezker aldetik abiatu eta eskuin alderantz doan pistari so egin gabe, ur gordailua (B) dagoen lekura heldu (guzti hau Andra Mari kalea dugu).

Eskumaldetik eta asfaltatutako bideetik igoko gara azken baserrietaraino. Handik gora pista zabala eta harritsua dugu. Apur bat aurrerago beste ur gordailu bat dago. Pista aurrera jarraituz laster bitan banatzen den gunera helduko gara eta guk eskumarantz eta gorantz doanari ekingo diogu. Korta antzeko bat ikusiko dugu, eta gero Santikurutz basilizaren (C) aurretik pasatuko gara. Ondoren beti goialdeko pistak hartuz denbora laburrean errekatxo bat zeharkatu beharko dugu. Geroago eskuin alderantz doan edozein pista hartuz, aldapa oso gogorra igo eta gero Inungana lepoan izango gara (700 m.) (D).

Orain pista utzi eta eskumarantz doan bidexka hartuko dugu harri artean sartzeko. Ez da erreza biderik onena zein den jakitea, baina gure iritziz ikurrak jarraitzea izan daiteke egokiena. Gailurreriaraino heltzen garenean eskumarantz joko dugu eta denbora gutxitan Leungana (1009 m.) mendi tontorra igoko gara. Pixka bat jaitsita laster izango gara Leungana eta Artatxagane artean dagoen lepoan (E), bertatik zuzen joango gara gorantz denbora laburrean Artatxagane (998 m.) tontorra gaintzeko.



### JAKINGARRIAK

Txartel kutxak hegazkin supersonikoaren antza du.  
Iraupena: Guztira ordu bi  
Bidean mota honetako zuhaitzak ikusi genituen:  
Pinuak(Ameriketakoak)-Elorriak-Basarak-Pagoak

**Pastretería PEDRO**  
IRUDIA SORTZEN DUGU  
BILBO  
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com/Spedro  
Tfona: 944 126 714 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com

**HORTZ KLINIKA**  
GERMÁN BERGARETXE  
GABRIEL RESTI, 30 4. G  
TXURDINAGA  
O.P.E: 02/9/97  
94 412 82 74

**MESÓN**  
TURETXE  
Santutxuko poteo gunean

# LASTER DA KALEAN OTXARKOAGAKO LA CALDERAREN CD-BILDUMA BERTAKO SEI MUSIKA TALDEEK BINA ABESTI GRABATU DITUZTE




**Otxarkoagako La Caldera  
elkarteko sei musika  
taldek cd-bilduma bat  
kaleratuko dute hileon.  
Lokal horretan  
entseguak egiten  
dituzten zortzi talde-  
tarik seik hartu dute  
parte proiektuan eta  
apirilaren lehenengo bi  
egunetan kontzertuak  
emango dituzte  
Azkena aretoan**

**Testua: Ixaso Perez  
Argazkiak: BERTON**

Hilabete honetarako kalean egongo da La Calderan jotzen duten zortzi taldeetarik seik grabatutako abestien bilduma, CD formatuan. Talde bakoitzak bina kantu sartu ditu diskoan. Asmo hori ia hasieratik eduki dute La Calderako kideek, baina bidea ez da erraza izaten grabaketa bat lortzeko, dirurik eta leku egokirik ezean. Urte dezente igaro behar izan dira CD hau kaleratzeko. Helburua

sinplea da, elkarteko taldeei grabatzeko aukera ematea eta elkartearen lana ezagutzera ematea. Izan ere, La Calderak kaleratzen duen lehenengo grabaketa da.

Esan bezala, sei taldek bakarrik grabatu dute: The Sandman, Ikaria, Ciudadano Kain, El Gato Negro, Bohemian Dust eta La Sombra. Amargor eta Alkimiak ezin izan dute parte hartu CDan. Berangoko Grabasonic estudioan grabatu dute, urritik abendura arteko epean izan behar zena otsaila arte luzatu zaielarik. Izan ere, maste-



rra otsailaren erdian jaso dute, eta orain estu dabil-tza, aurkezpen-prentsaurrekoa martxoaren erdian egingo dutelako, eta horren ostean, apirilaren 1 eta 2an kontzertuak eskainiko dituztelako Bilboko Azkena aretoan.

Apirilaren 1ean, ostirala, The Sandman, Ikaria eta Ciudadano Kain; rock, metal eta bestelakoa izango da aurkezpenaren lehenengo egunean. Larunbatean, apirilaren 2an, beste musika

mota batzuk: La Sombra, El Gato Negro eta Bohemian Dust, betiko rocka, poeta kantautore bat eta pop-rockek itxiko dute CD honen aurkezpena. Kontzertu biak gaueko 9etan hasiko dira.

CD honen esker-onen atalean sortu zenetik La Calderatik igaro diren talde zein pertsonak aitatu dituzte: Joseba eta bere lagunak -LP bat grabatutako lehenengoak, 'Heroes', Patagonia, Heces 15D, Su Santidad-Aita Santua, Santos Gil, Rabia, LDS, Anónimos, Kaka Fraketan,

Non Kulture, MOT, Bécquer y los incontrolables, Siglo XXI, Ya Te Digo, Elektrotuna, PNT, Currus Cus Cus, Golfos de Bizkaia, Los Golfos, OMS, Oh No!, Voltage, Revolución Intimista, Nueva Luz, Círculo Vicioso, Treedents, Nitxo, Arrakatzikateko, Plaga de moscas, Hard Gore, Lau Hoge, Irritados, Waldheim, Acidez, Lowuel eta Pottokak.

Beste aldetik, ikastaroetan eskolak eman dituztenei aipamena egiten diete. Horrela, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa eta baterria irakasleak izan diren Jesús 'Maguila' García, Hugo Delgado, Alvaro Martínez, Pedro Monge eta Roberto Crespo. Eta Sorgintxulo ez dute ahaztu ere, Santutxuko kulturagune erreferentziala izan den aldetik.

**URTE ASKO JO ETA KE**  
La Caldera 1980 urtearen aldera sortu zen, baina 1993 edo 1994ra arte ez zen elkarte gisa eratu. 1988an Otxarkoagako Auzo Etxearen

azpian lokal txiki bat utzi zieten taldeek euren entseguak egin zituzten. Hasieran hori baino ez zen, jotzeko leku bat, baina laster jendearen asmoak bultzatuta bestelako gauzak egiten hasi ziren: Rock eskola, tresnak jotzen hasteko ikastaroak (gitarra elektrikoa, bateria, baxua)... Lokalak ere bilakaera izan du, pintadaz betetako kobazuloa zena intsonorizatutako gela txukun bat bihurtu da eta. Horrek kalitateaz gain, bertotik pasatzen den jende kopurua ere igoarazi du. Horregatik, beste lokal baten bila hasi dira, entsegu gehiago egin ahal izateko, talde gehiagori

lekua egiteko eta rock eskola zabaltzeko, batez ere. Eta bide batez, taldeei egonkortasuna emateko ere.

Izan ere, une honetan bertan aritzen diren zortzi taldeentzat astean seina ordu daukate egokituta. Gehienek entseguak arratsaldez bakarrik egin ahal dituztenez, ezinezkoa zaie nahi duten moduan aritzea. Eta, egunen baten, baliabide ekonomiko nahikorik ez duten taldeek euren lanak editatzeko, eta bide batez inoiz estudio batera joatekotan, ezjakin inozoak bezala ez joateko, grabaketa estudio xume bat atondu gura dute.

La Calderako talde batzuk urteak daramatzate bertan, izenak aldatuta, taldekideen joan-etorriak tarteko... hola-koak dira El Gato Negro edo La Sombra. Aldiz, Bohemian Dust sartu berriak direla esan daiteke. Musika mota ezberdinak biltzen dira bertan, gehienak rockaren ingurukoak. Salbuespenak, La Sombra poeta-kantautorea da. Gitarra akustikoak aritzen da. El Gato

Negrok rithm&blues eta swing egiten du. The Sandmanek heavy jotzen du. Beste guztiak, rockari ekiten diote.

Orokorrean, bertako taldeek ez dute asmo handirik etorkizunari begira. Ez dute uste musikatik biziko direnik. Bada salbuespenik taldekideen artean, leku guztietan bezala, baina oso argi daukate denek bidea aukeratzekotan ez dela arrosa kolorekoa izango, eta behin eta berriro hormaren kontra joko dutela eta gainera, gustatzen ez zaizkien gauza asko eta asko 'jan' beharko dutela. Baina ilusioa hor dago.



Ciudadano Kain



**santutxuko** Iturriaga 96.  
**herriko taberna**  
Gosari bereziak:  
Kalea + pintxoak 1,30 €  
Euskal Herria  
AURRERA!!

**GOMIAN S.C.L.**  
**LAN BERTIKALAK**  
Pintura lanak etxaurre eta patioetan  
Ke-irteerak eta Ur-hodiak  
Eraikinetako edozein konponketa  
**ANDAMIO BARIK**  
**TELEFONOAK:**  
**630 08 09 38**  
**659 45 16 22**

# horoskopoa

- ♈ Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.**  
Gau osoa kale gorrian irlandar papardo horieko? Ezta zoratuta be ez!
- ♉ Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.**  
Hainbeste urtetan bilbotarrarena egiten ibili ondoren, edur apur bat egin eta Olentzeroren txamarrari besarkatuta zabilz?
- ♊ Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.**  
Zenbat bider esan behar dozu zuen artean ez dagola ezer bez? Famosetokoa emoten dozu...
- ♋ Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.**  
Giltza asko banatu dozuz azkenaldion. Ez ete da jente larregi izango?
- ♌ Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.**  
Oeoeoeoe, oe, oe! Oeoeoeoe, oe, oe! Bai, handia izan zan. Baina oraindino Real Madrilen kontrako garaipena ospatzen ibiltea be! Espabila zaitetz, gehiago datoz eta!
- ♍ Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.**  
Negar baten emon zenduezan Santutxuko inauteriak. Baina, lasai. Ez zengozan hain barregarri.
- ♎ Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.**  
Artxandako sorginok beti urtetan dozue irabazle. Ea eskolak emoten doskuzuez bestei!
- ♏ Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.**  
Santa ageda-agedaaaa! a zelako parranda! Baina batu zenduen dirua isilik egoteagaitik emon geuntsuen, ez ahaztu!
- ♐ Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.**  
Taberna zuloetatik lantzean behin urten behar dozu. Mundu oso bat dekozu kanpoan zure begira.
- ♑ Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.**  
Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finala aurren Bizkaian egingo dala entzun eta di-da baten hasi zara bertsotan ikasten. Bertsolari sena eukita be, ez ete da izango lar berandu?
- ♒ Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.**  
Adurra dariela dekozuz aiatxo eta amatxo zeuri begira. Eta hori dekozun tunante aurpegiagaz!  
Ongi etorria, seine!
- ♓ Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.**  
Zun, zun, zun, zun, zun, zun!!! Hasi prestatzen, hori kantatzeko sasoia dator eta. Ez dakizula zer dan? Galdetu, galdetu inguruan...

# agenda

**MARTXOAK 9**  
ZINEMA BEGOÑAKO  
UDALTEGIAN. 'NO TENGAS  
MIEDO'. 19:00ETAN.

**MARTXOAK 11-20**  
DEUSTUKO SAN JOSE JAIAK

**MARTXOAK 12**  
BERTSOLARI GAZTEEN BBK  
SARIKETAREN FINALA. KAFE  
ANTZOKIA. DOAKO  
SARRERA. 19:00ETAN.

**MARTXOAK 13-18**  
SANTUTXU-TXURDINAGAKO  
BOSGARREN EUSKARAREN  
ASTEA.

**MARTXOAK 16**  
ZINEMA BEGOÑAKO UDALTE-  
GIAN. 'TROYA'. 19:00ETAN.

**MARTXOAK 17**  
SPLIT 77-ZEIN?. KONTZER-  
TUA. KAFE ANTZOKIAN.  
22:00ETAN.

**MARTXOAK 18**  
IGNASI GONZALEZ QUARTET.  
JAZZ KONTZERTUA. BEGOÑA-  
KO UDALTEGIA. 20:00ETAN.

**MARTXOAK 20**  
KORRIKA BEGOÑAKO  
ERREPUBLIKARA SARTU ETA  
BILBON AMAIERA FESTA.

**MARTXOAK 27**  
ABERRI EGUNA

**MARTXOAK 29-31**  
ZINEMA BEGOÑAKO UDALTE-  
GIAN EUSKARAZ. 11:30EAN.

